



EDIKTUA

MERKATARITZA EZ EGONKORRARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA

Etxarri Aranazko Udalak, 2016ko urtarrilaren 13an egin bilkuran, honako hau ERABAKI ZUEN:

Hasiera batez onestea udal merkataritza ez egonkorrari buruzko udal ordenantzaren aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsi, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Etxarri Aranatz, 2016ko maiatzaren 2an

ALKATEA
Eneka Maiz Ulaiar

